

Intsumisioaren aldeko eguna 94/10/9

URRIAREN 9an Oiartzun intsumisioaren aldeko mugimenduaren indartzearen lekuko argia bihurtuko da. Ez nuke kolumnadun kritiko analista horietako bat izan nahi, ehunekoen gorabeheretan mozkortuz, baina intsumisioaren presentzia soziala areagotu egin dela susmatzeko ez dago Deustutik pasatu beharrik. Intsumisioen gartzelera-tzeak, 3. graduen hausteeak eta beste hainbat ekintzek intsumisioaren arazoa kalean inoiz baino argiago ikustarazi dute, gizarte mailan intsumisioaren aldeko mugimenduarekiko elkartasun handiagoa piztuz.

Baina batzuetan gertatzen da, komunera larri-larri iritsi... eta paperik ez



UNAI ITURRIAGA

dagoela! Hemen ere antzekorik gertatzen da. Zaila da gaur egun intsumisioaren aurka hitz egingo duenik aurkitzea Iruñeko artzapezpikua edo PSOE edo PPko iluminaturen bat izan ezik. Alli bera ere alde antzean omen dabil azkenotan (oraingoan txa-

pelik gabe). EAE maitagarri honetan ere, bada aho bete txikle hitz egin eta gero bere polizia bidualtzen duenik intsumisioen bila. Brabo! Brabo! Nor da hemen txanogorritxu eta nor da otsoa? Amona armairuan sartu eta biak ote daude bada ohe berean? PNVk (beste behin ere) hamar puztarri!

Gobernutik bururatu zaaien azkena dispertsioa izan da. Hori sutara egurra botzatzea bezala da, eta hain handi egin den garra ez dute ez dekretu errealez ezta sasi homilia santuekin ere itzaliko.

Oiartzunen ikusiko du-gu elkar! Ah! Eta etortzeko baimenik izango ez duten horiek ikusiko ez ditugun arren, ziur bertan egongo direla!